

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), 2020ko abuztuaren 1etik 31ra.

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/08/01

- 2020ko uztailaren 21eko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den 2020rako sektoreko gutxieneko soldatari buruzko akordioa, zementu sektoreko materia konkretuei eta hutsuneen estaldurari buruzko Estatuko V. hitzarmenetik eratorria. **2020-9005 xedapena - 2 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/08/10

- Ebazpena, 2020ko uztailaren 27koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den farmaziako espezialitateen eta produktuen banatzaileen merkataritzarako Estatuko hitzarmen kolektiboa. **2020-9482 xedapena - 31 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/08/12

- Ebazpena, 2020ko uztailaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den banku-sektorearen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko akordioa. **2020-9574 xedapena - 2 or.**
- Ebazpena, 2020ko uztailaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den zementuaren eratorrien sektorearen VII. hitzarmen kolektibo orokorraren soldaten berrikuspena. **2020-9577 xedapena - 3 or.**
- Ebazpena, 2020ko uztailaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den Kutxen eta Aurrezki Finantza Erakundeen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko erabakia. **2020-9582 xedapena - 2 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/08/14

- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 3koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den albaitaritzako zentro eta zerbitzuen Estatuko hitzarmen kolektiboa. **2020-9705 xedapena - 56 or.**

- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 3koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den Contact center sektorearen Estatuko II. hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioa. **2020-970 xedapena - 4 or.**
- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den paperaren eta arte grafikoaren 2019-2021 zikloaren hitzarmen kolektibo nazionala. **2020-9710 xedapena - 50 or.**
- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 5koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den saltoki handien sektoreko hitzarmen kolektiboaren 24. artikulua aplikatzeari buruzko akordioa. **2020-9712 xedapena - 2 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/08/15

- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 11koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den emakumeen futbolaren lehen mailako klubetan zerbitzuak ematen dituzten futbolarietarako hitzarmen kolektiboa. **2020-9765 xedapena - 30 or.**

Boletín Oficial del Estado de día 19/08/2020

- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 12koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den aurrezki kutxen eta finantza-erakundearen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko erabakia. **2020-9875 xedapena - 2 or.**
- Ebazpena, 2020ko abuztuaren 17koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen diren 2020ko abuztuaren 11koaren akatsak. Horren bidez, emakumeen futbolaren lehen mailako klubetan zerbitzuak ematen dituzten futbolarietarako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen da. **2020-9876 xedapena - 1 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/08/01

- **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA MINISTERIOA. - Profesionaltasun egiaztagirak** - EFP/748/2020 Agindua, uztailaren 29koa, zeinaren bitartez ezartzen diren profesionaltasun egiaztagirak irakastea malgutzeko salbuespenezko neurriak. **2020-8961 xedapena - 7 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. - Instalazio elektrikoak.** TED/749/2020 Agindua, uztailaren 16koa, zeinaren bitartez ezartzen diren konexio-sarearen kodeak inplementatzeko beharrezkoak diren sare-konexioen baldintza teknikoak. **2020-8965 xedapena - 53 or.**

2020/08/03

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. - Antolakuntza.** - Uztailaren 31ko 722/2020 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den ministerio-sailen egitura berriz antolatzen duen urtarilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretua. **2020-9020 xedapena - 1 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Dirulaguntzak.** - 703/2020 Errege Dekretua, uztailaren 28koa, zeinaren bitartez onesten diren COVID-19aren pandemiak eragindako inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egin ahal izateko arrantza jarduera aldi batez eteteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, zeinaren bitartez egiten den dirulaguntza horien deialdia 2020ko ekitaldiko lehen zatirako eta zeinaren bitartez aldatzen diren arrantza eta akuikultura sektoreetako antolakuntza profesionalak arautzeari eta aisialdiko arrantzari dagozkion bestelako errege dekretuak. **2020-9021 xedapena - 40 or.**

2020/08/05

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - 27/2020 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 4koa, toki-erakundeei aplikagarri zaizkien salbuespenezko eta premiazko izaerako finantza-neurriei buruzkoa. **2020-9131 xedapena - 48 or.**

- **KANPO ARAZOETARAKO, EUROPAR BATASUNERAKO ETA KOOPERAZIORAKO MINISTERIOA. – Nazioarteko akordio administratiboak.** – COVID-19aren aurkako txertoei buruzko Europako Batzordearen eta Estatu kideen arteko akordioa, 2020ko uztailaren 20an Madrilan sinatua. **2020-9132 xedapena - 6 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. - Armak. Araudia.** – 726/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zeinaren bitartez aldatzen den urtarilaren 29ko 137/1993 Errege Dekretuak onetsitako Armen Araudia. **2020-9134 xedapena - 51 or.**

2020/08/06

- **KANPO ARAZOETARAKO, EUROPAR BATASUNERAKO ETA KOOPERAZIORAKO MINISTERIOA. - Hizkuntzak Interpretatzeko Bulegoa. Araudia.** – 724/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zeinaren bitartez onesten den Kanpo Arazoetarako, Europar Batasunerako eta Kooperaziorako Ministerioaren Hizkuntzak Interpretatzeko Bulegoaren Araudia. **2020-9271 xedapena - 10 or.**
- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. – Eraikinetako instalazio termikoak.** - 736/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zeinaren bitartez arautzen den eraikinetako instalazio termikoetako banakako kontsumoen kontabilizazioa. **2020-9272 xedapena - 15 or.**

2020/08/07

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Erabilerarik gabeko pneumatikoak. Hondakinak.** - 731/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zeinaren bitartez aldatzen den erabilerarik gabeko pneumatikoen kudeaketari buruzko abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretua. **2020-9336 xedapena - 11 or.**
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.**
 - **Pentsio-planak eta -funtsak. Aseguru- eta -berraseguru erakundeak.** - 738/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zeinaren bitartez aldatzen diren pentsio-plan eta -funtsen erregelamendua onesten duen otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretua eta aseguru- eta berraseguru-erakundeen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretua. **2020-9340 xedapena - 33 or.**
 - **Kreditu erakundeak. Banku zerbitzuak.** – Honako agindu hauetako akatsen zuzenketa: ETD/699/2020 Agindua, uztailaren 24koa, kreditu itzultzailea arautzen duena eta Arriskuen Informazioari buruzko martxoaren 11ko

ECO/697/2004 Agindua aldatzen duena; EHA/1718/2010 Agindua, ekainaren 11koa, banku-zerbitzu eta -produktuen publizitatea arautu eta kontrolatzen duena, eta EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku-zerbitzuen bezeroen gardentasun eta babesari buruzkoa. 2020-9342 xedapena - 1 or.

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Erregistro prozedurak.** - Ebazpena, 2020ko uztailaren 27koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren, COVID-19aren berragertzeak egonez gero, neurriak berriz ezartzea erabakitzen duen 2020ko uztailaren 21eko ebazpenaren akatsak. 2020-9369 xedapena - 1 or.

2020/08/08

- **OSASUN MINISTERIOA. - Medikamentuak.** - Ebazpena, 2020ko uztailaren 31koa, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, zeinaren bitartez aldatzen den COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko funtsezkotzat jo diren medikamentuen zerrenda ezartzen duen 2020ko ekainaren 19ko Ebazpena, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazioko premiazko neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren 19.1 artikulua xedatutakoaren arabera. 2020-9430 xedapena - 4 or.

2020/08/11

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**
 - **Lurreko garraiobideak.**
 - Ebazpena, 2020ko uztailaren 23koa, Lurreko Garraiobideen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez ezartzen diren lurreko garriara bideratutako ibilgailu zehatzen gidarien prestakuntza zentroetako kontrol biometrikoaren sistemek bete beharreko ezaugarriak. 2020-9535 xedapena - 3 or.
 - Ebazpena, 2020ko uztailaren 24koa, Lurreko Garraiobideen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez ezartzen diren erabilera orokorreko ohiko garraioen zerbitzu publikoen erabiltzaileen erreklamazioen aplikazio informatikoek eta formulario elektronikoek bete beharreko ezaugarriak. 2020-9536 xedapena - 3 or.

2020/08/12

- **OGASUN MINISTERIOA. - Zerga prozedurak. Erakunde laguntzaileak.** - HAC/785/2020 Agindua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bitartez aldatzen diren Diru-bilketaren Araudi Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretua zati batean garatzen duen ekainaren 28ko EHA/2027/2007 Agindua, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren zerga-bilketako kudeaketan laguntza zerbitzua ematen duten kreditu erakundeei dagokienez, eta Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak kudeatzeko esleituta dituen zor zehatzen ordainketa helbideratzeko prozedura eta baldintzak ezartzen dituen ekainaren 12ko EHA/1658/2009 Agindua. **2020-9552 xedapena - 9 or.**

2020/08/15

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Polizia.** - 1/2020 Legegintza Dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez onesten den Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bategina. **2020-9740 xedapena - 64 or.**
- **KATALUNIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. - Kataluniako Kode Zibila.** - 9/2020 Legea, uztailaren 31koa, zeinaren bidez aldatzen diren pertsonari eta familiari buruzko Kataluniako Kode Zibilaren bigarren liburua eta 15/2009 Legea, zuzenbide pribatuaren alorreko bitartekaritzari buruzkoa. **2020-9741 xedapena - 9 or.**

2020/08/27

- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Premiazko neurriak.** 778/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, zeinaren bidez ezartzen den denboraleek eta beste hondamendi-egoera batzuek eragindako kalteak arintzeko premiazko neurriak ezartzen dituen irailaren 20ko 11/2019 Errege Lege-dekretuaren 9. artikuluan ezarritako neurrien aplikazioa 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean gertatu ziren hondamendi egoeretara. **2020-10007 xedapena - 5 or.**

2020/08/29

- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/805/2020 Agindua, abuztuaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengeni lotutako herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **2020-10046 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/08/06

- **LEHENDAKARITZA.** - 1/2020 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena. **3159 xedapena - 67 or.**
- **HEZKUNTZA SAILA.** - 98/2020 DEKRETUA, uztailaren 28koa, zeinaren bidez arautzen baita unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beken eskaerak eta gainerako tramiteak era elektronikoan derrigorrean egin beharra. **3160 xedapena - 4 or.**

2020/08/11

- **OSASUN SAILA.**
 - AGINDUA, 2020ko abuztuaren 7koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bitartez indarrrik gabe uzten baitira Eibar, Ermua eta Zarauzko udalerrietarako hartutako osasun publikoko neurri bereziak (neurri horiek hemen daude jasota: 2020ko uztailaren 21eko Agindua, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez, batetik, Eibar, Tolosa eta Zarauzko udalerrietarako mantentzen baita 2020ko uztailaren 8 eta 16ko aginduen bitartez hartutako osasun publikoko neurri berezien indarraldia, bestetik, neurri horien eraginkortasuna Bergara eta Ermuko udalerrietara zabaltzen baita, eta, hirugarrenik, indargabeturik geratzen baitira Ordiziako udalerrirako hartutako neurriak). **3220 xedapena - 2 or.**
 - AGINDUA, 2020ko abuztuaren 7koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko uztailaren 28koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre

egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. 3221 xedapena - 2 or

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 6/2020 FORU DEKRETU-ARAUUA, uztailaren 21ekoa, COVID-19aren osasun larrialdiaren ondorengo zerga neurri gehigarriei buruzkoa. 3222 xedapena - 5 or.
- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA. - INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko abuztuaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuena, nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskutan dauden eremuak izendatu eta aldatzen dituen. 3223 xedapena - 4 or.

2020/08/17

- **BESTELAKO XEDAPENAK**
 - **LEHENDAKARITZA.** - 17/2020 DEKRETUA, abuztuaren 15ekoa, Lehendakariarena, zeinaren bidez Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzen baititu, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean. 3300 xedapena - 1 or.
 - **OSASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko abuztuaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Segurtasuneko sailburuari eskatzen baitzaio aktiba dezala formalki Euskadiko Herri Babeseko Plana (Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi), COVID-19aren hedapenak eragindako alerta sanitarioaren aurrean. 3302 xedapena - 2 or.
 - **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko abuztuaren 14koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, COVID-19 delakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta. 3303 xedapena - 2 or.

2020/08/20

- **OSASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko abuztuaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu hori uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko aginduen bidez aldatu zen. **3330 xedapena - 18 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/08/12

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zergen aplikazioari eta tributu prozedurei lotuta egiten dituen pertsonatze jakinarazpenak arautzea. **2285 xedapena - 2 or.**

2020/08/26

- **FORU AGINDUAK (INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA).** - Hutsen zuzenketa, 2020ko abuztuaren 7an ALHAOko 88. zenbakian argitaratutako 2246 iragarkian, zeinaren bidez argitaratu baitzen 177/2020 Foru Agindua, uztailaren 29koa, Arabako naturagune babestuetan ibilgailuak aparkatzeko arauak eta mugak ezartzekoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko. **2433 xedapena - 1 or.**

2020/08/31

- **FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).** - 134/2020 Foru Agindua abuztuak 24koa, baimena ematen duena, salbuespenez, mendeko pertsonei gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria duten langileak kontratatzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko erizaintzako laguntzailearen kategoriako. **2473 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/08/03

• **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.**

- Bizkaiko Batzar Nagusiak 2020ko ekainaren 10eko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, zeinen bidez apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailea baliozkotzen dan, COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzkoa. **506 xedapena - 1 or.**
- 2020ko ekainaren 10eko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, zeinen bidez maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailea balioz-kotzen dan, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzkoa. **507 xedapena - 1 or.**
- 2020ko uztailaren 15eko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, zeinen bidez 7/2020 Foru Dekretu Arauemailea baliozkotzen dan. 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez, egokitzeko tributu-neurriak sartzen dira sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan, COVID-19a dela-eta. **508 xedapena- 1 or.**
- 2020ko uztailaren 15eko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, zeinen bidez 8/2020 Foru Dekretu Arauemailea baliozkotzen dan. Ekainaren 30eko 8/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailean dauden akatsak zuzentzen dira. 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez, egokitzeko tributu-neurriak sartzen dira sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan, COVID-19a dela-eta. **509 xedapena - 1 or.**

2020/08/18

- **AHALDUN NAGUSIA.** - Ahaldun Nagusiaren 127/2020 FORU DEKRETUA, abuztuaren 17koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana Aktibatu eta Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planean (LABI) integratzen duena. **Disposición 548 - 1 or.**

2020/08/05

- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. - Gizarte Ekintza Saila.** - Gizarte Ekintza saileko foru diputatuaren 36599/2020 FORU AGINDUA, abuztuaren 4koa, COVID-19aren osasun-krisialdian Bizkaiko Lurralde Historikoko eguneko arretarako gizarte zerbitzuetako zentroentzako neurri osagarriak ezartzen dituen. **525 xedapena - 2 or.**

2020/08/06

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1355/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 27koa, zeinaren bidez onesten baitira 1995eko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduaren 26. artikuluan zigarretetarako eta tabako xeherako ezarritako marka fiskalei buruz xedatutakoa garatzeko arauak. **513 xedapena - 7 or.**

2020/08/10

- **BATZAR NAGUSIAK. - Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 4/2020 FORU ARAUA, ekainaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikokoaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra onesten duena. **520 xedapena - 2 or**
- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. - Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1367/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 29koa, 2020. urtean COVID-19aren kontra egiteko ikerketa-jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko betekizunak eta bete beharreko prozedura ezartzen dituen. **519 xedapena - 3 or.**

2020/08/19

- **DIPUTATU NAGUSIAREN FORU DEKRETUAK.** - Diputatu Nagusiaren 265/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 17koa. Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana aktibatzea, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdia dela eta. **2408 xedapena - 1 or.**

2020/08/21

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.** - Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuaren 38986/2020 FORU AGINDUA, abuztuaren 20koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetarako bisitak arautzen dituen COVID-19ak eragindako osasun-krisian zehar. **554 xedapena - 3 or.**

2020/08/27

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - 9/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abuztuaren 25ekoa, «UEFA Women's Champions League 2020»ren azken fasearen araubide fiskalarena eta COVID-19ren ondorioz Balio Erantsiaren gaineko Zerga egokitzeko neurriei buruzkoa. **551 xedapena - 7 or.**

2020/08/31

- **ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 80/2020 FORU DEKRETUA, abuztuaren 25ekoa, zeinaren bidez COVID19 pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, Bizkaiko gazteen enplegarritasuna sustatzeko Kontrata 30 programaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten baitira. (Bizkaia Aurrera). **552 xedapena - 14 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/08/05

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 317/2020 Foru Agindua, uztailaren 29koa, zeinaren bidez, onartzen baita 2020-2021ko Sozietateen gaineko zergaren zerbitzuen karta. **3955 xedapena - 7 or.**

2020/08/19

- **GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA.** - 1211/2020 Foru Agindua, abuztuaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana aktibatu eta Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planean (LABI) integratzekoa. **4250 xedapena - 1 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO